



MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI BURUZKO ABISUA 5578/2023 Zkia

Sortutako data eta ordu lokala: 2023/01/17, 10:00.

Informazioaren eguneratze data eta ordu lokala: 2023/01/17, 19:30
(baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

◆ Zergatia:

Itsasaldeko Arriskua: Nabigazioa lehenengo bi milietan
Itsasaldeko Arriskua: Zipriztinak
Prezipitazio iraunkorra
Haizea: haizeguneetan
Abisu Horiaren Amaiera: Haizea haizeguneak ez diren tokietan
Elurra: Prezipitazioa elur moduan 1000 m-tik Behera

◆ Muturreko Fenomenoen Iragarpena:

Asteartea, hilak 17:

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 03etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 5-6 m ingurukoa izango da. Mendebal/ipar-mendebaldeko hondoko itsasoa handitu egingo da 4-5 m inguruko olatuak altxatu arte. Periodoa: 13-14 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da, 6-7ko indarrarekin, eta 8ko tarte batzuekin. Itsaso zakarra edo oso zakarra eragingo du, itsaso-handiko gune batzuekin.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Olatuen zipriztinak 00etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen ezaugarrien eta mendebal-osagaiko haize zakarraren ondorioz pasealeku eta malekoietan zipriztin eta olatu-zaparrak erori daitezke, bereziki itsasgoraren inguruan. Olatuen altuera adierazgarria 5-6 m ingurukoa izango da. Itsasgora 12:20etan (ordu lokala) 3.83 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 3.63 m + meteorologikoa: 0.20 m).

- Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, 03etatik (ordu lokala) osteguna, 24etara (ordu lokala) bitartean Kantauri isurialdeko zenbait lekutan 24 orduan 60 l/m² baino gehiago pila daitezke. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du eta ugaria izango da, bereziki Kantauri isurialdean, non zenbait lekutan oso ugaria eta iraunkorra izan den. Egunaren gainerako orduetan 15-40 l/m² inguru pila daitezke Kantauri isurialdeko zenbait lekutan, eta 2-8 l/m² Arabako Lautadan.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 24etara ordu lokala.

Mendebal-osagaiko haize boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneetan, bereziki kostaldean eta ekaitz-guneetan.

- Amaitu da abisu horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan.

- Abisu Horia elurragatik barnealdean 09etatik 24etara ordu lokala.

Elur-kota 1000 m-tik jaisten joango da, arratsaldean 500-700 m inguruan kokatuz eta baliteke gauean 400 m jaitea, noizbehinka beherago kokatuz. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du eta ugaria izango da, bereziki Kantauri isurialdean, non zenbait lekutan oso ugaria eta iraunkorra izan den. Baliteke trumoi-ekaitzak jo eta txingorra botatzea, bereziki Kantauri isurialdean. Barnealdean izotz txikia egingo du.

Aurreikusitako lodierak: 5-20 cm 1000 m-ra, 0-5 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

Asteazkena, hilak 18:



- Alerta Laranja elurragatik barnealdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Elur-kota 400-500 m inguruan kokatuko da, eta baliteke noizbehinka 200-300 m-ra jaitea. Zaparrada ertainak botako ditu, iraunkorrak eta ugariak izango dira, bereziki Kantauri isurialdean, eta bertan prezipitazioa oso ugaria izan daiteke. Baliteke trumoi-ekaitzak jo eta txingorra botatzea, bereziki Kantauri isurialdean. Barnealdean izotz txikia egingo du, mendi inguruetakoz zenbait lekutan handia. Aurreikusitako lodierak: 20-40 cm 1000 m-ra, 5-30 cm 600 m-ra, 0-5 cm 200 m-ra.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala.**

Olatuen altuera adierazgarria 5 m ingurukoa edo handiagoa izango da goizaldean; jaisten joango da, gauean 4 m ingurukoak altxatu arte. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Periodoa: 14-15 s. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da 5-6ko indarrarekin. Itsaski handia edo itsaso zakarra eragingo du.

- Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, 03etatik (ordu lokala) osteguna, 24etara (ordu lokala) bitartean Kantauri isurialdeko zenbait lekutan 24 orduan 60 l/m² baino gehiago pila daitezke. Zaparrada ertainak botako ditu, iraunkorrak eta ugariak izango dira, bereziki Kantauri isurialdean, eta bertan prezipitazioa oso ugaria izan daiteke. Asteazkenean 60 l/m² inguru pila daitezke Kantauri isurialdeko zenbait lekutan, eta 15-25 l/m² inguru gainerako tokietan.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 24etara ordu lokala.

Ipar-mendebaldeko haize boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneetan, bereziki kostaldean eta ekaitz-guneetan.

Osteguna, hilak 19:

- Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 18etara ordu lokala.

Elur-kota 400-500 m inguruan koka liteke eta goizaldean noizbehinka beherago egon liteke; eguerdi partean 600-700 m-ren bueltan koka daiteke, eta arratsaldean igotzen joango da 1000-1200 m inguruan kokatu arte. Zaparrada ertainak botako ditu, ugariak eta iraunkorrak izango dira Kantauri isurialdean; gainerako lekuetan txiki-ertainak izango dira. Egunaren lehenengo partean baliteke trumoi-ekaitzak jo eta txingorra botatzea, bereziki goizaldean eta Kantauri isurialdean. Barnealdeko zenbait lekutan izotz txikia egingo du, mendi inguruetakoz zenbait lekutan handia.

Aurreikusitako lodierak: 20-30 cm 1000 m-ra, 5-15 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 12etara ordu lokala.**

Olatuen altuera adierazgarria 4-4,5 m ingurukoa izango da; jaisten joango da, eguerdi partean 3,5 m ingurukoak altxatu arte. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3,5 m inguruko olatuak altxatuko ditu, eguerdi partean 3 m ingurukoak. Periodoa: 13-14 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da 5-6ko indarrarekin; goizaldean eta goizean goiz ipar-mendebaldekoa nagusituz. Itsaski handia edo itsaso zakarra eragingo du.

- Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Bizkaian eta Gipuzkoan 00etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, 03etatik (ordu lokala) osteguna, 24etara (ordu lokala) bitartean Kantauri isurialdeko zenbait lekutan 24 orduan 60 l/m² baino gehiago pila daitezke. Zaparrada ertainak botako ditu, iraunkorrak eta ugariak izango dira, bereziki Kantauri isurialdean, eta bertan prezipitazioa oso ugaria izan daiteke. Ostegunean 40-60 l/m² inguru pila daitezke Kantauri isurialdeko zenbait lekutan, eta 10-20 l/m² inguru gainerako tokietan.

◆ Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:

Gaur asteartea, hilak 17, behatutako olatuen altuera adierazgarria: Donostiako buia 6.1 m (09etan ordu lokala)



Atzo astelehena, hilak 16, pilatutako euria, l/m²-tan:

Arteaga 96
Galdakao 92
Mungia 90
Venta Alta 90
Zegama 81
Aizarnazabal 74

Gaur asteartea, hilak 17, pilatutako euria, l/m²-tan:

Mallabia 41
Eskas 40
Miramon 38

Gaur asteartea, hilak 17, haizeguneetan neurtutako haize-bolada maximoak (km/h):

Matxitxako 161
Cerroja 143
Santa Clara 137
Higer 133
Punta Galea 116
Kapildui 103

Gaur asteartea, hilak 17, haizeguneak ez diren tokietan neurtutako haize-bolada maximoak (km/h):

Mungia 105
Berastegi 87
Paganos 85

Sigue la información en Twitter-[Informazioa](#) Twitter-en jarraitu.

[@112_SOSDeiak](#) [@Euskalmet](#)